2015-XII-11
Número **475.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela.eus

astekaria

# EDITORIALA

## Lan-hitzarmenen benetako defentsa

**ELAk merkataritzako akordio marko bat sinatu du Euskal Autonomia Erkidegorako, sektoreko langileen eskubideak eta baldintzak babesteko. Akordio honi esker etorkizunean Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako merkataritzan lan egiten duten langileek euren hitzarmenak babestuta izango dituzte Estatuan lortzen diren akordio atzerakoien aurrean. Izan ere, Estatu mailan hainbat ekimen dago martxan negoziazio kolektiboa monopolizatu eta zentralizatzeko. Jose Luis Rodriguez Zapateroren –PSOE– erreformak prozesu horri bide eman zion, eta CCOOk, UGTk zein patronal espainiarrak negoziazio-mahaiak eratu zituzten beren helburu zentralizatzailea lortzeko.**

**Gaur Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritzan lan egiten duten beharginentzat estatu mailako negoziazioa kalterako izango zatekeen, eskubide eta lan-baldintzen galera medio. Aurrerantzean lanean hasten direnentzat, berriz, onartu ezineko soldata-eskala bikoitza eta baldintza okerragoak ezarriko zizkieketen. Horregatik da horren garrantzitsua ELAk lortu duen akordioa, langile horien eskubideak blindatzen dituelako.**

**Nork defenditzen ditu benetan Hitzarmen Probintzialak? Ez, noski, Madrilen mahaiak antolatzen dituztenek, handik negoziatzeko gaiak ebasteko. Ezta eduki erregresiboak dituzten hitzarmenak sinatzen dituztenek ere, esaterako soldata eta antzinatasun izoztuak, elikagaien merkataritzan edota merkataritza orokorrean egin zuten bezala. ELAk, gainera, ahalegin handiak egin ditu jantzi-denden hitzarmenean erreferentzia eta baldintzak desberdinak izan daitezen: blindajeak eta soldata igoerak dituen akordioa, eta lanaldi partzialeko kontratu duinak bermatzen dituena.**

**Nafarroan egoera oso bestelakoa da. ELAk Nafarroako negoziazioa blindatzea eskaini zien CCOO eta UGT sindikatuei, baina hauek uko egin diote. Zoritxarrez, gure sindikatuak ez du –oraingoz– gehiengo absolutua Nafarroako merkataritzan. Sektore honetako langileak izango dira galtzaileak, euren larruan pairatu beharko dutelarik CCOO eta UGTren axolagabekeria.**

Lankidetu!

### Tras la última reunión de la Comisión parlamentaria ELA ve difícil que salga adelante la ILP, al contar sólo con el apoyo de EH Bildu

# “OPONERSE A NUESTRA ILP ES APOYAR LA MISERIA LABORAL”

Los peores augurios en torno a la aprobación de la Iniciativa Legislativa Popular presentada por ELA en el Parlamento vasco se van confirmado: tras más de dos años desde el comienzo de la iniciativa, ésta continúa aún en trámite parlamentario, y tras la última reunión de la Comisión de la ponencia de esta ley –el pasado 4 de diciembre– todo apunta a que no saldrá adelante, ya que sólo cuenta con el apoyo de EH Bildu.

En opinión de ELA, las posiciones contrarias a esta ILP coinciden con las de Confebask –en una reunión reciente manifestó que la ILP era un “disparate”– y son consecuentes con la política de ajustes del Gobierno Vasco, que da prioridad a los recortes presupuestarios sobre la dignidad laboral. ELA destaca, también, el hecho de que la decisión de aprobar una ILP que pretende poner coto a la precariedad en las subcontratas públicas compete, en exclusiva, a las instituciones vascas, al tiempo que recuerda que una ILP exactamente igual fue presentada en el Parlamento de Navarra y que todos los grupos votaron a favor.

La reunión de la ponencia de la ley que se desarrolla dentro de la Comisión de Hacienda del Parlamento vasco fue el último capítulo –por el momento– de una larga historia de zancadillas a la tramitación y aprobación de esta Iniciativa Legislativa Popular presentada por ELA y avalada con 110.000 firmas en la CAPV. Tal como recuerda Joseba Villarreal, “desde el principio ha habido interés por sabotear nuestro objetivo de impedir que el mundo de las subcontratas se convierta en una especie de ley de la selva. Quienes se oponen a la misma son los mismos que realizan licitaciones en las que se ofrece miseria laboral. Pensamos, sinceramente, que la falta de respeto hacia el trabajo sindical que ELA ha desarrollado con esta ILP refleja un comportamiento político impropio de una sede parlamentaria”.




**En la imagen Adolfo Muñoz, secretario general, y Joseba Villarreal, responsable de negociación colectiva, en la rueda de prensa celebrada para valorar la reunión del 4 de diciembre de la Comisión de Hacienda del Parlamento vasco, comisión en la se está tramitando nuestra ILP.**

***(Sigue en la página 2)***

### ELAk Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen inguruko jardunaldia egin zuen abenduaren 3an Gasteizen

# “MURRIZKETAK GASTEIZEN ERE ERABAKITZEN DIRA, EZ SOILIK MADRILEN”

Azaroaren 27an Iruñean egin bezala, abenduaren 3an ELAk aurrekontuen inguruko formazio eta mobilizazio jardunaldia egin zuen Gasteizen. Orotara milatik gora ordezkari bildu ziren, lehenik Europa Jauregian egin zen ekitaldian eta ondoren Gasteizko kale nagusiak zeharkatu zituen manifestazioan parte hartzeko. EAEko aurrekontuen inguruko mobilizazio eguna abenduaren 3an egin izana ez zen kasualitatea izan. Izan ere, egun horretan Gasteizko Legebiltzarrak 2016rako Eusko Jaurlaritzak aurkeztu dituen aurrekontuen inguruko saioa egin zuen.

***(2. orrialdean jarraitzen du)***






Volviendo a la reunión del 4 de diciembre, el responsable de negociación colectiva de ELA critica duramente tanto las formas como el fondo de la misma, salvando, únicamente, la intervención del representante de EH Bildu, que se mostró favorable a la misma y ofreció al resto de partidos la posibilidad de negociar y buscar alternativas al texto presentado por ELA para lograr una mayoría que permitiera su aprobación.

"A la Comisión no asistió la presidenta de la misma –del PSE-EE–. Tampoco acudieron ni UPyD ni PP. Es decir, de los cinco grupos parlamentarios faltaron dos. Nos parece un dato a resaltar que esos partidos no tengan hora y media para exponer sus razonamientos en relación con la ILP". Además, Villarreal critica duramente la falta de respeto y los prejuicios hacia ELA, el desconocimiento de varios de los parlamentarios sobre la realidad sindical y la demagogia utilizada por los representantes del PNV y del PSE-EE en sus intervenciones. "Ambos partidos encadenaron intervenciones absolutamente fuera de lugar. Por parte del PNV hubo afirmaciones como que *'Mariano Rajoy es el mejor militante de ELA'*; por parte del PSE-EE otras como que *'ELA y la patronal comparten objetivos'*, o *'la subrogación laboral limita e impide el principio de libertad de empresa'*, o *'no vamos a crear un cuerpo de parafuncionarios'*, o *'ya que los funcionarios tienen el puesto para toda la vida habrá que repartir empleo en las subcontratas'*, o *'estamos de acuerdo en que se apliquen los convenios pero no es nuestra función resucitar muertos'* y un largo etc...".

Para Villarreal, argumentos "impresentables" que demuestran que "no hay voluntad política" de aprobar esta ILP y evidencian la enorme distancia entre muchos políticos y la realidad sociolaboral que vive la clase trabajadora vasca.

## "NO VAMOS A DAR LA SITUACIÓN POR PERDIDA"

El secretario general de ELA, por su parte, destacó la dureza de una reunión en la que se demuestra que la mayoría de los grupos políticos, en vez de optar por mejorar las condiciones laborales de las personas subcontratadas, apuestan por seguir permitiendo a empresas piratas explotar, obligando –por ejemplo, en la Obra Pública licitada por el propio Gobierno Vasco– a trabajar 12 horas al día, con un salario de 5 euros la hora. "Es con estas prácticas con las que PNV y PSE-EE no quieren acabar".

Adolfo Muñoz insistió en el hecho de que tirando licitaciones a la baja el Gobierno Vasco está realizando recortes encubiertos y silenciosos, y que con esta política el ejecutivo no ve inconveniente en que la gente entre al mercado laboral en condiciones de explotación. "Licitando obras por debajo del 40% de lo presupuestado saben perfectamente que la gente a la que se va a contratar no se le va a aplicar el convenio. Casualmente, ése es también el empleo que quiere Confebask".

El secretario general de ELA afirmó que desde que ELA presento su ILP, hace más de dos años, el sindicato se ha reunido con todos los grupos parlamentarios –a excepción del PP, porque éste no ha querido– y ha explicado la importancia de esta iniciativa hasta la saciedad, por lo que si no sale adelante es "porque no hay voluntad de cambiar las cosas. A la patronal no le interesa; al gobierno parece que tampoco".

"Esta ILP –concluye Muñoz– es una oportunidad inmejorable para la clase política de pasar de las palabras a los hechos. Desde el sindicato hemos hecho un último llamamiento a los diferentes grupos parlamentarios a que aprueben la ILP y demuestren que están a favor de la dignidad laboral. Mientras tanto, ELA seguirá luchando para poner coto a la precariedad también en las subcontratas públicas. No vamos a dar la situación por perdida. Vamos a seguir movilizándonos para que esta ILP vea la luz en la CAPV al igual que ocurrió en Navarra".




## DUELA BI URTE BAINO GEHIAGO SORTUTAKO HERRI EKIMENA

**ELA, 110.000 lagunek sinatu zuten Herritar Legegintza-Ekimen (HLE) honen bultzatzailea da. HLEak hiru helburu ditu: esleipenak aldatuz gero lanaren jarraipena bermatzeko subrogazio laborala ezartzea; euskal eremuko lan-hitzarmenak aplikatzea, eta baldintza-agirietan jasotako eskakizunak betetzen ez dituzten enpresentzako zigorrak aurreikustea. HLEa 2013ko urriaren 29an hasi zen, eta bi urte igarota oraindik Legebiltzarrean lantzen ari dira. Bada, abenduaren 4an egin zen batzordean entzun zena entzunda, gure sindikatuaren ondorioa argia da: HLEa ez da aurrera aterako. Izan ere, gaur gaurkoz EH Bilduren babesa baino ez du.**




*"Los recortes se deciden en Gasteiz, no en Madrid. Es el Gobierno Vasco el que acuerda con el Gobierno español priorizar el cumplimiento del límite de déficit y el pago de la deuda"*

Bere parte-hartzean, ELAko idazkari nagusi Adolfo Muñozek argi eta garbi utzi nahi izan zuen murrizketak Gasteizen –eta Iruñean– erabakitzen direla, ez Madrilen. "Ez da egia murrizketak Madrilen erabakitzen direnik. Inola ere ez. Eusko Jaurlaritzak Madrilekin hitzartu du lehentasuna ematea defizit muga errespetatzeari (2017rako gehienez %0,3) eta zorraren ordainari (1.171 milioi euro). Aldi berean, Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek baztertu egiten dute zergak erreformatzea Europar Batasuneko batez besteko presio fiskalarekiko dugun gabezia gainditzeko (6.000 milioi EAEn). Politika horrekin, propaganda alde batera utzita, politika neoliberalak inposatzen dituen memoranduma aplikatzen ari dira. Grezian bezalaxe".

Muñozek aipatu zuenez, ELAk eta gizarte-politiketan alternatibak aldarrikatzen dituzten kolektibo sozialek beren frustrazioa adierazteko eskubidea dute: "Ardura instituzionalak dituen klase politiko guztiak baztertu egin ditu zerga-politikako alternatibak, baina baita egin beharreko pedagogia ere. Adierazgarria da fiskalitateari buruz argitaratzen den iritziak zerga-politikaren joera neoliberala auzitan ez jartzea. Hau EAEn eta Nafarroan gertatzen da. Aldaketa soziala ezinezkoa da egungo zerga-politikari eutsiz gero, eta gai fiskala bigarren planoan kokatzea benetako drama dugu".

ELAko idazkari nagusiak argi utzi nahi izan zuen behin eta berriz murrizketak Hego Euskal Herrian erabakitzen direla. "Hor daude, esaterako, Euskal Erakundeen eta Estatuaren artean izan diren akordioak; akordio horiek ahalmen arautgilea funtsezko gaietan mugatu egiten dute. Azken akordioa 2014ko urtarrilaren 16an izan zen, Itunaren Batzorde Mistoan. Bilera hartan, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru Aldundiek –orduan EAJ, PP eta EH Bildu agintean zirela– Cristobal Montoro ministroarekin sinatu zuten 2013 eta 2016 bitartean doikuntza eta egonkortasun politika aplikatuko zutela, defizita eta zorraren ordaina zehaztuaz. Akordio hau gizarte-politikentzat oso txarra izan zen".

"Hau guztiagatik, gero eta arrazoi gehiago dugu alderdiekiko eta botere ekonomikoarekiko interpelazio soziala argia eta autonomoa izan dadin. Politikaren edukia izan behar da interpelazio sindikal eta sozialaren oinarria, ez politika hori egiten duen alderdiaren izena".

**Marige Fernández, responsable de ELA en el sector del comercio textil de Bizkaia, analiza tanto el Acuerdo Marco firmado en el comercio como el acuerdo en el comercio textil de Bizkaia**

# "HA SIDO LA LUCHA SINDICAL LA QUE HA LOGRADO ESTE GRAN ACUERDO"



ELA ha firmado con la patronal del comercio un Acuerdo Marco en el ámbito de la CAPV que supone defender los convenios sectoriales del comercio de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa frente a la injerencia estatal. El acuerdo tiene su base en el preacuerdo suscrito en julio del 2015 entre ELA y la patronal del comercio, y que finalmente se ha elevado a acuerdo. A este acuerdo se han sumado otras organizaciones. Además, ELA, con mayoría absoluta en el sector del textil de Bizkaia, ha firmado con la patronal del comercio el convenio de este sector. El preacuerdo suscrito el pasado mes de julio ha sido finalmente elevado a convenio. Se trata de un convenio sectorial que blinda a las trabajadoras frente a la reforma y que contiene muy buenos contenidos económicos y sociales.

**-El Acuerdo Marco para el sector del comercio a nivel de la CAPV supone un freno a la centralización.**

-Efectivamente, en el 2011, Zapatero hizo una reforma de la negociación colectiva posibilitando que los convenios y acuerdos marco estatales puedan reservarse materias para negociar en exclusiva. Rápidamente los sindicatos CCOO y UGT y la patronal española se pusieron manos a la obra para impulsar acuerdos donde no había, acuerdos que contemplan una amplia reserva de materias usurpando contenidos de negociación a los convenios provinciales.

**-¿Qué medidas han puesto en marcha para vaciar los Convenios Provinciales del comercio?**

-En septiembre del 2015 CCOO, UGT y la patronal española impulsaron la constitución de una mesa para la negociación de un Acuerdo Marco Estatal. Quieren ostentar a nivel estatal el monopolio de la negociación de los convenios, y decidir desde allí qué condiciones se van a aplicar, entre otras, a las trabajadoras del comercio de la CAPV. Las consecuencias serían nefastas: condiciones salariales inferiores, mayor jornada, peores coberturas en bajas, en licencias y en el resto de condiciones sociales.

**-¿No es contradictorio con la supuesta posición de defensa de los convenios provinciales que mantienen esas organizaciones en la CAPV?**

-Sí, públicamente dicen defenderlos, pero en la práctica negocian su desaparición. Mantienen un doble discurso que ya no resulta creíble. Por eso, cada vez tienen menos respaldo en las elecciones sindicales, mientras que ELA consolida la mayoría absoluta.

**-¿Qué supone el Acuerdo Marco del comercio que ELA ha impulsado y ha firmado en la CAPV?**

-Poner freno a la estrategia estatal. Supone blindar los convenios de comercio de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa frente a acuerdos regresivos del Estado. En definitiva, proteger las condiciones de las trabajadoras del comercio y sus convenios de referencia.

En Navarra tenemos una situación bien distinta. ELA no tiene mayoría absoluta como en la CAPV. Propusimos a CCOO y UGT hacer blindar la negociación de Navarra, pero se negaron a ello. Las consecuencias de esta negativa, si nada lo remedia, serán retroceso en condiciones de trabajo y doble escala salarial peor para las nuevas contrataciones.

**-¿Cómo se explica que organizaciones que dicen defender a las trabajadoras tomen decisiones que les perjudican?**

-Realmente es inexplicable. CCOO y UGT recientemente han firmado un convenio en el Estado para las empresas que gestionan los comedores escolares. La resultante ha sido: bajos salarios para las nuevas incorporaciones, incrementos de jornada, coberturas sociales insuficientes y ninguna cláusula de blindaje frente a la reforma. Eso sí, regula muchas prebendas sindicales para los firmantes del convenio.

Otro ejemplo. ¿Qué hacen estas organizaciones a nivel del Estado en relación a la liberalización de horarios comerciales? ¿Qué papel han jugado? Aceptación sin ningún tipo de oposición. Ni una sola movilización frente a ello. La resultante, apertura del comercio 365 días del año. Por contra. ¿Qué sucede en la Comunidad Autónoma del País Vasco? Las trabajadoras descansan los domingos y festivos. ¿Cuál es la diferencia? Dos modelos sindicales distintos.

ELA está y estará al lado de las trabajadoras del comercio que decidan pelear por mejores condiciones.

**-Por último. ¿Qué valoración haces del acuerdo en el comercio textil de Bizkaia?**

-Es un muy buen convenio. Muy bueno, blindaje frente a la reforma, incrementos salariales, creación de nuevos pluses y un elemento importante: limitación de los contratos a tiempo parcial y consolidación de horas complementarias. La contratación a tiempo parcial se ha extendido de manera muy peligrosa en el comercio, un elemento de precariedad al que ELA quiere poner freno. Hemos firmado un bueno convenio pero tenemos mucho trabajo por delante. Ahora hay que blindarlo en los centros de trabajo.

**CONVENIO COMERCIO DEL TEXTIL DE BIZKAIA 2009-2015: CONTENIDOS**

## LA REFORMA NO ENTRA EN EL SECTOR

**Ultraactividad.** Indefinida, es decir, el convenio seguirá aplicándose hasta la firma del próximo convenio. Dicho de otra manera: no habrá vacío legal, ni podrán amenazarnos con el fin del convenio para obligarnos a aceptar contenidos regresivos. En el caso de que a futuro existiera un convenio de CAPV que pudiera sustituir al de Bizkaia, la ultraactividad sería de 36 meses.

**Inaplicación de las condiciones de trabajo.** No habrá arbitraje ni laudo del ORPRICCE, salvo que la mayoría de cada parte así lo decida.

**Flexibilidad.** Se limita la flexibilidad al 5%.

**Salarios (en tabla): 2009** incremento del IPC del 2008; **2010** incremento del IPC del 2009; **2011** incremento del 2%; **2012** incremento del 2%; **2013** incremento del 1,5%; **2014** incremento del 0,3%; **2015** IPC del 2014 + 1.

**Atrasos:** Se pagarán los atrasos generados por todo el periodo. Solo las empresas con graves dificultades económicas podrán exonerarse del pago de los atrasos y por el periodo acreditado. Se establece también que en ningún caso procede la devolución de las cantidades abonadas a cuenta convenio. En el supuesto de empresas con dificultades económicas debidamente acreditadas se establece un proceso gradual de aplicación de tablas. En todo caso, el 1 de julio de 2017 todas las empresas aplicarían las tablas señaladas anteriormente más los incrementos que, en su caso, se pactaran para el 2016 y 2017.

**Plus a partir de las 20:30:** Quienes trabajen a turnos y a partir de las 20:30, cobrarán un plus de 6 euros la hora o parte proporcional. Compatible con plus nocturno.

**Jornada:** Se mantiene la redacción del anterior convenio estatutario siendo por tanto, los sábados tarde de verano de libranza. Asimismo se establece la obligatoriedad de descanso en 4 sábados durante el año.

**Contratos a tiempo parcial:** Mínimo 20 horas semanales. El 30% de la media de las horas complementarias realizadas los últimos dos años pasarán a ser estructurales. El cómputo de la consolidación se realiza de manera individualizada.

**BIZKAIKO EHUNGINTZA MERKATARITZA. EDUKI NAGUSIAK**

- **Ultraaktibitatea mugagabea izango da irizpide orokor gisa, hau da, hurrengo hitzarmena sinatu arte.**
- **Hitzarmena ez aplikatzeko ez da arbitrajerik ezta ORPRICCEko laudorik inposatuko, alde bakoitzaren gehiengoak hala nahi ez badu.**
- **Soldata igoerak: 2009tik 2015era %8,26 igoko dira soldatak eta urtez urte atzerakinak kobratzeko eskubidea emango dute.**
- **20:30tatik aurrera txandetan lan eginez gero, orduko 6 euro kobratuko dira.**
- **Lanaldi partzialak: gutxienez astean 20 ordukoak. Ordu osagarrien %30 kontsolidatzeko eskubidearekin.**

# LABURREAN / BREVES

## • Nazio Kontseiluaren bilera Eibarren

Abenduaren 17an Nazio Kontseiluaren –Kongresuen arteko organo gorena– bilera egingo da Eibarren. Beste hainbat gairen artean, 2015. urteko errepasoa egingo da, hauteskunde sindikalak, afiliazioa edo egungo abagune sozial eta ekonomikoa bezalako gaiak oinarri hartuta. 2016ko aurrekontuak aurkeztu eta aprobatu egingo dira. Gainera, datorren urterako gure sindikatuak dituen erronkak ere aztertuko dira. Bertan prekarietatearen aurkako kanpaina edo abagunearen azterketa landuko dira.

## • Abenduaren 20 hauteskundeen aurrean ELAren proposamenak

Abenduaren 20an Espainiako Kongresua eta Senatua osatuko duten ordezkariak aukeratzeko hauteskundeak deituta daude Espainiar Estatuan. Hauteskunde hauek direla-eta, ELAk egungo abagunearen aurrean egiten duen irakurketa eta dituen eskakizunak publiko egin ditu.

ELAk salatzen duenez, azken urteetako zentralizazio eta inboluzio prozesua (Zapatero eta Rajoyren gobernuekin garatu dena) gizarte-eredu bidegabea areagotzeko baliatu da. Egoera honetan, gero eta argiago, euskal erakundeak estatuaren erabakien kudeatzaile huts bilakatu dira; antza, eginkizun honekin lasai bizi dira, autogobernuaren aurkako eraso honi aurre egiteko ez baitute bat ere kemen politikorik agertzen.

Hau guztiagatik, Euskal Herri burujabe eta justuago bat lortzeko bidean, ELAk uste du bi ardatz hartu behar direla: bide propioa eta gizarte-politiken aldeko apustu gogorra. ELA prest dago bide horretatik joateko bi norabideetan engaiatzeko prest dauden indarrekin. Kataluniako esperientziak argi uzten du gisa honetako prozesu batek estatuarekiko desobedientzia aintzat hartu behar duela.




## • Huelga en el papel de Gipuzkoa

Convocados por todos los sindicatos con representación en el sector del papel de Gipuzkoa –ELA, LAB, CCOO y UGT– la práctica totalidad de las y los trabajadores secundaron los seis días de huelga convocados en el sector –27, 28 y 29 de noviembre y 3, 4 y 5 de diciembre–. Josu Olazabal, representante de ELA en el papel de Gipuzkoa, considera que la convocatoria de huelga ha sido un éxito. "La práctica totalidad de las y los trabajadores han respaldado las movilizaciones, y durante esos seis días todas las empresas del papel pararon totalmente su actividad".

Olazabal destaca que en el caso de que la patronal continúe con su actitud continuarán las movilizaciones. "Las y los trabajadores del papel somos conscientes que la patronal no nos ha dejado otro camino que la movilización si queremos conseguir un convenio digno. Estamos dispuestos a luchar por nuestras condiciones laborales, queremos que lo que se acuerde se cumpla, y que la negociación del convenio dé respuesta a la problemática actual del sector".




## • Suhiltzaileek mobilizazioekin jarraitzen dute

Eusko Jaurlaritzak Suteen Prebentzio eta Itzaltze eta Salbamendurako lehen lege-proiektua onartu zuen uztailean. Orain proiektua Eusko Legebiltzarrean dago. ELAko ordezkari Ekaitz Oiangurenek salatzen duenez,"Eusko Jaurlaritzak aldebakarrez landu du lege hau, suhiltzaileekin eta beraiek ordezkatzen dituzten sindikatuekin ezertarako ere kontatu gabe. Langileen aldarrikapenei entzungor egin diete".

Erabilitako moduak salatzeaz gain, Oiangurenek gogor kritikatzen ditu lege honen edukiak. "Lege honen helburua, suhiltzaile zerbitzu publikoa pribatizatzea da. Eta, agerikoa den bezala, honek lan-baldintzen prekarizazioa ekarriko du: lanaldi partzialak sustatzen dira eta interinitateari ez zaio inongo mugarik jartzen. Gainera, lege honek ezinegon nabarmena sortu du suhiltzaileen artean. Izan ere, ez du suhiltzaile zerbitzuaren funtzioak eta helburuak zeintzuk diren argitzen, administrazioaren diskrezionalitatea indartuz. Lege hau ez da ez suhiltzaileek ez eta euskal gizarteak behar dutena, horren garrantzitsua den zerbitzu honen kalitatean eragina izango duelako".

Horregatik orain arte bezala mobilizatzen jarraitzeko asmoa berresten du Oiangurenek. "Azken asteetan mobilizazioak Donostian eta Gasteizen izan dira. Hurrengo hitzordua, berriz, abenduaren 16an dugu Bilbon. Lege hau atzera bota arte borrokan jarraituko dugu".

## • Langabeen %58,8ak ez du inolako prestaziorik jasotzen

Enplegu Zerbitzu Publikoak azaroko langabeziaren inguruko datuak argitaratu ditu. Datuei erreparatuta Hego Euskal Herrian 193.811 pertsona daude langabezia egoeran izena emanda. Datuek agerian uzten dute gurean apenas sortzen dela enplegurik, urriarekin alderatuta soilik 2.784 pertsona gutxiago daude langabezian erregistraturik. Gainera, estatistika ofizialak erreparatuz agerian gelditzen da sortzen den enplegu urriaren kalitate eskasa.

Bestalde, ELAk langabezian dauden lagunen egoera gero eta okerragoa dela ohartarazi nahi du. Urrian langabezia egoeran zeuden 196.595 pertsonetatik soilik 80.844k jaso zuten prestazioren bat; hau da, langabeen %58,8ak ez zuen inolako prestaziorik jaso bere langabe egoeragatik; are gehiago, egoera hau okerreantz doa azken urteetan, eta ez dirudi epe laburrean joera aldatuko denik.

## • Gasteizko lorazainak, greban

Viveros Perica azpikontratako langileek –Gasteizko lorezaintza zerbitzuaz arduratzen den enpresa– greba egin zuten abenduaren 4an. Gasteizko Udalak %40 murriztu nahi du hiriko lorategiak garbitu eta zaintzeko bideratutako aurrekontua. Asmo horren ondorioz, Viveros Perica enpresako langileen etorkizuna jokoan dago, eurak baitira udaletxeari zerbitzu hori eskaintzen dion enpresa azpikontratatutako langileak.

## • Movilizaciones contra las externalizaciones en Mercedes-Benz

ELA secunda las movilizaciones convocadas en Mercedes-Benz para denunciar la decisión de externalizar el servicio de la Logística de Montaje Bruto. En opinión de nuestro sindicato el único objetivo de esta multinacional es aumentar sus beneficios a costa de empeorar las condiciones laborales de su plantilla. Aunque la empresa plantea reubicar a los 18 empleados y empleadas afectados directamente en su plantilla principal, el empleo de nueva creación será en condiciones inferiores.

En opinión de ELA esta actitud es un despropósito, y más teniendo en cuenta la carga de trabajo que tiene la empresa. La planta de Mercedes-Benz en Gasteiz está obteniendo cifras históricas y se prevé que el 2016 sea un año record en cuanto a producción en la planta de Gasteiz.

**www.ela.eus / @ELAsindikatua / ELA-Facebook**

**Franqueo concertado**
**nº 08/207**

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

**www.ela.eus**